

## AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO

El grupo municipal UdalBerri-Bilbao en Común presenta al próximo Pleno Ordinario esta proposición para su debate y aprobación relativa a la “creación de un Consejo Alimentario Municipal en Bilbao”.

### PROPUESTA

El Pleno del Ayuntamiento de Bilbao insta al Equipo de Gobierno a crear un Consejo Alimentario Municipal de Bilbao, en el que participen todos los actores interesados en el sistema alimentario local, con el objetivo de trabajar conjuntamente en la construcción de políticas alimentarias sostenibles.

### JUSTIFICACIÓN

Partiendo del compromiso asumido en octubre de 2015 por este Gobierno Municipal con la firma del Pacto de Política Urbana Alimentaria de Milán, el cual nos obliga a trabajar de forma efectiva para desarrollar un modelo alimentario sostenible, inclusivo, resiliente, seguro y diversificado, que asegure comida sana y accesible a toda la ciudadanía.

Teniendo en cuenta la necesidad y la urgencia de trabajar de forma colaborativa, desde las instituciones públicas, la sociedad civil, la universidad y el sector privado, en la construcción de una estrategia urbana alimentaria que ofrezca una respuesta efectiva a los problemas alimentarios del presente y también a los retos del futuro.

Por todo ello, desde UdalBerri – Bilbao en Común, consideramos que resulta socialmente necesario y políticamente pertinente, impulsar en Bilbao un Consejo Alimentario Municipal, como espacio de gobernanza inclusivo en torno a la alimentación sostenible, incluyendo a todos los actores del sistema alimentario local. Desde el que poder debatir y proponer un modelo alimentario sostenible y ajustado al contexto de nuestra ciudad y a los retos de la globalización.

En Bilbao, a 13 de febrero de 2019.



Fdo. Carmen Muñoz López  
Concejala UdalBerri-Bilbao en Común

## **BILBOKO UDALAREN OSOKO BILKURARI**

Datorren Ohiko Osoko Bilkuran UdalBerri-Bilbao en Común udal-taldeak "Bilbon Udal Elikadura Kontseilu bat sortzeari" buruzko proposamen hau aurkeztuko du, eztabaidatu eta onartzeko.

### **PROPOSAMENA**

Bilboko Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio Bilbon Udal Elikadura Kontseilu bat sor dezala, tokiko elikadura-sistemarekiko interesa azaltzen duten eragile guztiek parte hartuz bertan, elikadura-politika jasangarrien eraikuntzan elkarrekin lan egiteko helburuarekin.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Udal Gobernu honek 2015eko urrian Milango Elikadura-arloko Hiri Politikako Ituna sinatzerakoan bere gain hartu zuen konpromisoa hartzen da abiapuntutzat, izan ere, modu eraginkorrean lan egitera behartzen gaitu elikadura-eredu jasangarria, inklusiboa, erresilientea, segurua eta dibertsifikatua garatzeko, herritar guztientzako janari osasuntsua eta eskuragarria ziurtatuko duena.

Erakunde publikoek, gizarte zibilak, unibertsitateak eta sektore pribatuak lankidetzan lan egitea beharrezkoa eta premiazkoa da, egungo elikadura-arazoei eta etorkizuneko erronkei erantzun eraginkorra emango dien elikadurako hiri-estrategia bat gauzatzeko.

Hori guztia dela medio, UdalBerri – Bilbao en Común taldeak uste dugu sozialki beharrezkoa eta politikoki bidezkoa dela Bilbon Udal Elikadura Kontseilu bat sustatzea, elikadura jasangarriaren inguruko gobernantza-gune inklusibo gisa, tokiko elikadura-sistemako eragile guztiak barne hartuz. Jasangarria izango den eta gure hiriaren testuingurura eta globalizazioaren erronketara egokituko den elikadura-eredu bat eztabaidatu eta proposatu ahal izateko.

Bilbon, 2019ko otsailaren 13an.



Sin.: Carmen Muñoz López

Udalberri-Bilbao en Común taldeko zinegotzia